

## **DEIALDI PUBLIKOA**

### **TOLOSAN ESNE ETA ESNEKIEN MAKINA BAT INSTALATU ETA USTIATZEKO EMAKIDA ESLEITZEKO**

#### **1. XEDEA**

Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak deialdi publiko hau egiten du Tolosako Emeterio Arrese plazan esne eta esnekiak zuzenean merkaturatzeko makina automatiko baten instalazio eta ustiapena esleitzeko.

Deialdi hau Tolosako Udalak Tolomendiri emandako emakida-baimenean oinarritzen da, eta haren baldintzak integratzen ditu.

Helburua da:

- tokiko lehen sektorea sustatzea,
- hurbileko merkaturatzea indartzea,
- tokiko esne eta esnekien kontsumoa bultzatzea,
- eta landa garapena eta ekonomia lokala indartzea.

#### **2. EMAKIDAREN EZAUGARRIAK**

##### **2.1. Kokalekua**

Makina Tolosako Emeterio Arrese plazan kokatuko da, gaur egun esne makina dagoen kokalekuan.

##### **2.2. Iraupena**

Emakidak hamar (10) urteko iraupena izango du, eta beste hamar (10) urtez luzatu ahal izango da aldeek adostuz gero eta indarreko araudia betetzen bada.

##### **2.3. Ordutegia**

Makina 08:00etatik 22:00etara egongo da erabilgarri. Ordutegitik kanpo pertsiana automatikoa itxita egon beharko da.

#### **3. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Deialdian parte hartu ahal izango dute:

- Nekazaritza ustiategi profesionalak (ATP),
- kooperatibek,
- elkarteek,
- edo lehen sektoreko jarduera profesionala egiten duten pertsona fisiko edo juridikoek,

betiere esne eta/edo esnekiak ekoitzi eta merkaturatzen badituzte.

Parte-hartzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

### **3.1. Baldintza teknikoak**

- Ustiatagia Gipuzkoan kokatua egotea.
- ATP izaera egiaztatzea.
- Saltzen diren produktuak ustiatagi propioan ekoizitakoak izatea.
- Kudeaketa tekniko-ekonomikoa egiaztatzea.
- Osasun-erregistroa edo baliokidea edukitzea.
- Araudi tekniko-sanitario guztiak betetzea.

### **3.2. Hizkuntza baldintzak**

Makinaren komunikazio, jarraibide eta informazio guztietan euskarari lehentasuna emango zaio.

### **3.3. Martxan jartzeko epea**

Makina gehienez sei (6) hilabeteko epean instalatu eta martxan jarri beharko da, esleipena gauzatzen den egunetik hasita.

## **4. MAKINAREN ETA INSTALAZIOAREN BALDINTZAK**

Makina berriak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Homologazio eta administrazio-baimen guztiak edukitzea.
- Enpresa ustiatzailearen identifikazioa ikusgai edukitzea.
- Produktuen informazio argia eskaintzea.
- Dirua itzultzeko sistema edukitzea.
- Bibrazioen aurkako sistemak edukitzea.
- Irisgarritasun baldintzak betetzea.
- Braille edo karaktere handiko informazioa edukitzea.
- Musikarrik edo soinu erakargaririk ez edukitzea.
- Elikagaiak behar bezala ontziratatu eta etiketatzea.

## **5. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK**

Esleipendunak honako betebeharrak hauek izango ditu:

### **5.1. Kanonak, tasak eta tributatuak**

Esleipendunak bere gain hartuko ditu:

- udal tasak,
- kanonak,
- lizentziak,
- baimenak,
- eta jarduerari lotutako gainerako kostu guztiak.
-

## 5.2. Erantzukizun zibileko aseguru

Gutxienez 30.000 euroko estaldura duen erantzukizun zibileko aseguru edukitu beharko da emakidak dirauen bitartean.

## 5.3. Mantentzea eta garbiketa

Esleipendunaren ardura izango dira:

- makinaren mantentzea,
- inguruko espazioaren garbiketa,
- hondakinen kudeaketa,
- hustuketa eta higie baldintzak bermatzea,
- eta okupazioak eragindako kalteak konpontzea.

## 5.4. Ustiapen-gastuak

Makina ustiatzeko beharrezko diren gastu guztiak esleipendunaren kontura izango dira.

## 5.5. Ordenantzak eta araudia

Esleipendunak Tolosako Udalaren ordenantzak eta aplikagarria den araudia bete beharko ditu emakidak dirauen bitartean.

## 6. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Eskaerak gehienez 110 punturen arabera baloratuko dira. Baloraketarako erizpide bakoitza beharrezko dokumentu edo agiriekin egiaztatua egon beharko du.

### 6.1. Ekoizpen eredu (gehienez 10 puntu)

Irizpidea	Puntuazioa
• Ekoizpen ekologikoko ziurtagiria	10 puntu
• Ekoizpen integratuko edo baliokidea den ziurtagiria	5 puntu
• Ez du ziurtagirik	0 puntu

### 6.2. Hurbiltasuna eta ingurumen inpaktua, esne makinaren kokapena eta ekoizpen gunearen arteko distantzia (gehienez 10 puntu)

Distantzia	Puntuazioa
• 0-10 km	10 puntu

<b>Distantzia</b>	<b>Puntuazioa</b>
• 11-20 km	5 puntu
• 20 km baino gehiago	0 puntu

### 6.3. Hondakinen ingurumen-kudeaketa (gehienez 10 puntu)

<b>Neurria</b>	<b>Puntuazioa</b>
• Hondakinen sorrera gutxitzea eta berrerabilpena	10 puntu arte
• Material birziklagarriak erabiltzea	5 puntu arte

### 6.4. Lan eta bizi baldintzak (gehienez 10 puntu)

<b>Egoera</b>	<b>Puntuazioa</b>
• Kooperatiba, elkarte edo soldatapeko langileak dituen egitura	10 puntu
• Norbanako jarduera	0 puntu

### 6.5. Landa zaurgarritasuna (gehienez 10 puntu)

<b>Maila</b>	<b>Puntuazioa</b>
• ABE	10 puntu
• V2-V3	5 puntu
• Bestelakoa	0 puntu

### 6.6. Merkaturatze eredia (gehienez 15 puntu)

<b>Hurbileko salmentaren ehunekoa</b>	<b>Puntuazioa</b>
• %80 baino gehiago	15 puntu
• %50-%80	10 puntu
• %20-%49	5 puntu
• %20 baino gutxiago	0 puntu

### 6.7. Esne makinaren bidez saldu nahi diren produktu dibertsitatea (gehienez 15 puntu)

<b>Produktu-familia</b>	<b>Puntuazioa</b>
-------------------------	-------------------

<b>Produktu-familia</b>	<b>Puntuazioa</b>
• 5 edo gehiago	15 puntu
• 2-4 produktu-familia	10 puntu
• Produktu-familia bakarra	0 puntu

### **6.8. Beste esne makina batzuk ez izatea (gehienez 10 puntu)**

<b>Egoera</b>	<b>Puntuazioa</b>
• Beste esne makinarik ez izatea	10 puntu
• Bat edo bi makina edukitzea	5 puntu
• Bi baino gehiago edukitzea	0 puntu

### **6.9. Genero eta belaunaldi erreleboa (gehienez 10 puntu)**

<b>Egoera</b>	<b>Puntuazioa</b>
• Bazkideen %50 emakumeak izatea eta/edo bazkideren bat 40 urtetik beherakoa izatea	10 puntu
• Gainerako kasuak	0 puntu

### **6.10. Kontsumitzaileari zuzendutako ekimenak (10 puntu)**

<b>Egoera</b>	<b>Puntuaketa</b>
• Baserritarren azoketan parte hartze maila: Asteroko azoketara joatea	5 puntu
Azoka berezietan parte hartzea	3 puntu
• Esne makinari lotuta proposatzen dituzten ekintza gehigarri edo osagarriak (kopuruaren eta ezaugarrien arabera neurtuko dira)	5 puntu

## **7. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

### **7.1. 1. Sobrea – Administrazio dokumentazioa**

- NAN / IFZ
- Ordezkaritza agiriak
- ATP ziurtagiria
- Ogasun eta Gizarte Segurantza ziurtagiriak
- Osasun-erregistroa
- Ekoizpen ereduak egiaztatzen duten ziurtagiriak
- Kudeaketa tekniko-ekonomikoaren egiaztapenak, ziurtagiriak,
- Aseguru-polizaren kopia edo konpromisoa

- Erantzukizunpeko adierazpenak, (gaur egun beste esne makinarik duen edo ez adierazten duena agiriak...)

## **7.2. 2. Sobrea – Proposamen teknikoa**

- Makinaren memoria teknikoa
- Produktuen zerrenda eta deskribapena
- Ontzien ezaugarriak eta hondakinen kudeaketa ereduak
- Euskararen erabilera plana
- Kudeaketa zentro baten txosten teknikoaren bidez hurbileko salmentaren erizpidea justifikatzeko informazio gehigarria, hala-nola, bezero moten zerrendatze baten bidez, merkaturatze kanal desberdinen memoria baten bidez edo eta fakturazioaren banaketa lagin baten bidez.
- Mantentze plana
- Martxan jartzeko egutegia
- Lurzorua egoera egokian itzultzeko konpromisoa.

## **8. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA**

Eskabideak aurkezteko epea uztailaren 6an bukatuko da.

Eskabideak honako helbide honetan aurkeztu beharko dira:

### **Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea**

Avda. Navarra 6  
20400 Tolosa

Edo posta elektronikoz: [tolomendi@tolomendi.eus](mailto:tolomendi@tolomendi.eus)

## **9. BALORAZIO BATZORDEA**

Eskaerak baloratzeko batzorde tekniko bat eratuko da Tolomendiko gobernu batzordea osatzen dutenen ordezkarien artean, gutxienez honako hauek osatua:

- Udalen ordezkari bat
- Lehen sektoreko ordezkari bat,
- Tolomendiko teknikari bat

## **10. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA**

Puntuazio handiena lortzen duen eskaintza izango da esleipenduna.

Tolomendik:

- ebazpena jakinaraziko du,
- eta dagokion emakida edo ustiapen hitzarmena formalizatuko du.

## **11. IKUSKAPENA ETA EMAKIDAREN AMAIERA**

Tolomendik eta Tolosako Udalak instalazioa ikuskatzea ahal izango dute edozein momentutan.

Honako egoeretan emakida bertan behera utzi ahal izango da:

- oinarriak ez betetzeagatik,
- araudi sanitarioa urratzeagatik,
- ordenantzak ez betetzeagatik,
- edo interes publikoak hala eskatzen duelako.

Emakida amaitzean:

- makina kendu,
- eta espazioa egoera egokian utzi beharko da.

## **12. ARGITALPENA**

Deialdi hau Tolomendiren komunikazio-kanalean eta egoki irizitako bestelako euskarrietan argitaratuko da.